

Didaktika saila

info@soinuenea.eus



@Soinuenea

soinuenea.eus

# JARDUERA PROGRAMA



SOINUENEA  
Herri Musikaren Txokoa

# SOINUENEA ETA HERRI- MUSIKA



Soinuenea - Herri Musikaren Txokoak bere sorreratik hainbat programa pedagogiko garatu ditu, herri-musika biziarazteko eta herri-kulturaren parte diren ezagutzak transmititzeko asmoz.

Gure jarduera nagusia haur eta gazteekin museoan egindako bisita gidatuek osatzen dute, baina bestelako ekintzak ere antolatzen ditugu. Azken urteetan hots-jostailuen tailerrak, kontzertu didaktikoak, dantza-tailerrak, erromeriak eta festa eta tradizio herrikoiekin lotutako bestelako musika-ekitaldiak programatu ditugu, besteak beste.





**Musika munduko gizatalde guztietan aurki daiteke. Soinuenean esperientzia bat proposatzen dugu, non ikasleek herri-musikako tresnak eta soinuak ezagutuko dituzten, eta musikaren aniztasunarekin eta unibertsaltasunarekin harrituko diren.**



# BISITA ETA HOTS- JOSTAILUEN TAILERRA



LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA



SOINUENEA

[info@soinuenea.eus](mailto:info@soinuenea.eus)

SOINUENEA  
Herri Musikaren Txokoa

[soinuenea.eus](http://soinuenea.eus)

# BISITA GIDATUA



Soinueneak musikaren inguruan bizipen berezi bat proposatzen dizue. Egitasmo honek bisita gidatua eta hots-jostailuak eraikitzeko tailerra uztartzen ditu.

**Bisitan zehar**, ikasleek soinu-tresnen historiari eta herri-kulturari buruzko ezagutzak barneratuko dituzte; zuzenean tresnen hotsa entzun, eta erakusketako 400 aleetako batzuk jotzeko aukera ere izango dute.

Sormena eta musika biak batera lantzeko, **hots-jostailuak eraikitzeko tailerrak** ere eskaintzen ditugu. Hotsaren alderdi fisikoak esploratzeaz gain, herri-kulturarekin konektatu eta ongi pasatzeko aukera eskaini nahi dugu horrela.

Nork bere hots-jostailua eraikitzea bilatzen dugu, eta hotsarekin jolasteko eta irudimenari eragiteko aukera sortzea. Ikasle bakoitzak bere tresna eta bisitako esperientzia eramango ditu etxera.

## KALAKA

5 - 6 URTE

VIDEO 

Tailer honetan kalaka bat egingo dugu, hiru zur zatirekin eta sokatxo batekin. Zura apaindu eta gero, sokarekin zatiak muntatzen ikasiko dugu.

Tailerraren bukaeran, jolasteko txanda iritsiko da! Hotsarekin esperimentatzen eta erritmo desberdinak sortzen saiatuko gara; jostaketa eta musikaren alderdi sinpleenak landuko ditugu horrela.

## FIRRINGILA

7- 8 URTE

VIDEO 

Tailer honetan, firringila bat egingo dugu, bi zulo dituen zur zati zapal bat (botoi bat ere izan daiteke), bi zur zati luzeska eta sokatxo bat baliatuta. Zura margotu eta zatiak elkarri lotuko dizkiogu sokatxoarekin. Jotzeko, soka ongi kiribildutakoan, jolasean hasiko gara, soka alboetara tenkatuz eta laxatuz.

Honela, zurezko zatia biraka hasiko da, airea moztuko du eta hotsa sortuko da. Hemendik aurrera, soka indar gehiagorekin edo gutxiagorekin tenkatuaz, zur zatitxoak eragindako hotsa aldatzen joango gara, fisikaren eta musikaren arteko lotura ulertzeko.



# TAILERRAK

## TURUTA

9 - 10 URTE

VIDEO 

Tailer honetan turuta bat egingo dugu, kanabera arrunta, plastikoa eta haria erabilia. Lima batekin zulo bat egingo diogu kanabera zatiari. Jarraian, hariarekin plastiko zatia (mintza) kanaberaren mutur batera lotuko dugu. Azkenik, turutari hotsa ateratzeko, aurrez egin dugu zuloan ahoa kokatu eta kanta-marmarrean nahi dugun doinua abestuko dugu.

Hots-jostailua jotzeaz gain, ikasleek ikasiko dute kanabera ilargi-zikloaren zein unetan moztu behar den, zenbat denboran lehortzen utzi behar den, eta material berarekin beste zein soinu-tresna egin daitezkeen.

## BURRUNA

11 - 12 URTE

VIDEO 

Tailer honetan zurezko taulatxo batekin burrun bat egingo dugu. Limak erabilia, zurari forma emango diogu. Jarraian, sokak lotuko dizkiogu. Jotzerako garaian, soka bere baitan kiribildu ondoren, taulatxoa askatu eta airean biraka jarriko dugu.

Taulatxoak aireari dar-dar eragitean, honek hotsa emango du. Biren intentsitatea aldatuta, hots desberdinak lortzen ikasiko dugu. Gure mugimenduek eta abiadurak hotsarekin duten harremana ulertuko dugu, funtsean.

# TAILERRAK





Ezagutu eta proba ezazu  
Euskal Herriko soinu-  
tresna berezietako bat!

Txalaparta sormenerako tresna da, norbera askatasunez adierazteko eta lagun batekin edo gehiagorekin konexioa bilatzeko bide aproposa.

Horregatik, adierazpide hau bereziki erakargarria da Batxilergoko ikasleentzat.

Parte hartzaileek ez dute soilik txalaparta jotzen ikasiko; tresnaren erro historikoak eta herri-kulturatik musika garaikidera egin duen bidea ere ezagutuko dute.



SOINUENEA EDO IKASTETXEA



BATXILERGOA



# TXALAPARTA

info@soinuenea.eus

SOINUENEA  
Herri Musikaren Txokoa

soinuenea.eus

# BIDAIA BAT TXALAPARTAREN MUINERA




- **Historia eta tradizioa:** txalapartaren historia ezagutuko dugu, eta tresna honek lan-erritmoekin izan duen loturan sakonduko dugu.
- **Txalapartaren aldaerak:** txalaparta baino ezezagunagoak diren aldaerak ezagutuko ditugu: kirikoketa, toberak, idaurrak eta ote-jotzea, besteak beste. Hauek baserriko eta landa-eremuko lanekin eta eguneroko bizitzarekin zuten harremana era landuko dugu.
- **Praktika:** hemen dator ziur aski dibertigarriena; oinarrizko teknikak ikasiko ditugu eta erritmo eta hots desberdinekin probatuko dugu.
- **Ttakun:** Ttakun programa informatikoa ezagutuko dugu, konposiziorako eta irakaskuntzarako tresna dena. Batek daki: agian hau ikasleren batentzat abentura musikal berri baten hasiera izango da!

Tailer praktiko honetan, erritmoaren bidez eta gorputzetik abiatuta, herri-musikarekin konektatzea bilatuko dugu.



SOINUENEA  
Herri Musikaren Txokoa



# KONTZERTU DIDAKTIKOA



SOINUENEA  
Herri Musikaren Txokoa

# SOINU-TRESNAK EUSKAL HERRI-MUSIKAN

## Soinu Bidaia Euskal Herriko Instrumentuetan zehar

Euskal Herriko musika ezaugarritzen duten soinu-tresna tradizionalen aniztasuna bertatik bertara ezagutzeko eta gozatzeko aukera paregabea da kontzertu didaktiko hau.

"Soinu-Tresnak Euskal Herri-Musikan" soinu-bidaia bat da, non parte-hartzaileek Euskal Herriko musikaren soinu eta erritmoak ezagutuko dituzten, txalaparta, txistua, alboka edo panderoa bezalako instrumentuen bidez.


Zuzeneko interpretazioekin eta azalpen interaktiboekin, parte-hartzaileek soinu-tresnen historia, hotsa eta testuinguru kulturala ezagutuko dituzte. Tresna bakoitzaren ingurua, eraikuntza eta erabilera hizpide izango ditugu, baita euskal tradizio eta festetan betetzen duten papera ere. Zuzeneko musikaren bidez euskal kulturarekin konektatzeko aukera eskaintzen dugu, finean.



ADIN GUZTIENTZAT



OIARTZUNGO LANDETXE AUDITORIOAN EDO IKASTETXEAN



# INFORMAZIO PRAKTIKOA

## BISITA GIDATUA

**IRAUPENA:** 90 minutu.

**PREZIOA:**

- 4-10 pertsona: 9€ pertsonako (BEZ barne).
- 10-20 pertsona: 90 € (BEZ barne).

## TAILERRAK

**IRAUPENA:** 45-90 minutu bitartean.

**PREZIOA:**

- 4-10 pertsona: 6€ pertsonako (BEZ barne).
- 10-24 pertsona: 60 € (BEZ barne).
- Prezioa (pertsonako) hots-jostailuaren arabera:
  - Kalaka: 3,75 €
  - Firringila: 1,50 €
  - Turuta: 1,50 €
  - Burruna: 4,00 €

HIZKUNTZAK: EUSKARAZ, GAZTELERAZ, FRANTSESEZ, INGELESEZ ETA ALEMANEZ

**Bisita gidatuak eta tailerrak aurrez hitzartu beharko dira, emailez edo telefonoz gure lantaldearekin harremanetan jarrita.**



“Gaur egun mundu osoko musika entzuteko aukera dugun arren, gero eta estandarizatuagoak daude gustuak eta musika-formak, eta kultura eta estilo desberdinetako herri-musika bazterrean geratzen ari da.

Jarduera hauekin eta gure Fundazioaren lanarekin, musika eta soinu-tresna herrikoiak zabaltzeko motorra izan nahi du Soinueneak.”

**JUAN MARI BELTRAN ARGIÑENA**

Soinuenearen Fundatzailea

